



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpena (7/2012 espedientea, EIA, Ekintza eta Laguntza Sozialaren Erakunde Integrala Elkartea)

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), jada aipatuko kideek osaturik eta Natividad Goñi Urriza andrea txostengile lanetan zuela, ebazpena eman du 07/2012 espedienteari buruz, EKINTZA ETA LAGUNTZA SOZIALAREN ERAKUNDE INTEGRALA ELKARTEA (EIA). Espediente hori Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak hasi zuen, EIAk aurkeztutako salaketaren ondoren, Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Ospetsuak (Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoak) ukatu egin zuelako EIA elkargokide egiteko eskaera.

I.- AURREKARIAK

2012ko apirilaren 10ean Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN) igorritako idazkia sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEZ) erregistroan. José Carlos Piñeiro Gonzálezek Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoaren aurka aurkeztutako salaketa baten berri ematen zuen idazkiak.



Salaketak adierazten du Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoak uko egin ziola EIA Elkargoan sartzeko eskaerari, nahiz eta EIAk badituen prokuradore izateko lanbide-titulazioa duten langileak.

Halaber, salatzaileak zalantzan jartzen du elkargokide egiteak nahitaezkoa izan behar duenik edota abokatu- eta prokuradore-lanak bateraezinak direnik.

Azkenik, salatzaileak argudiatzen du elkargokide diren prokuradoreek, bitarteko publikoak dituztenez (bulegoak, altzariak eta langileak), lehiarako abantaila dutela, eta ezin direla lehiatu elkargokide ez direnekin.

2. LDEZak zuzentze-errekerimendu baten jakinarazpena bidali zion EIAri 2012ko maiatzaren 23an. EIAk, bere aldetik, 2012ko ekainaren 7an eman zuen informazioa.

3. LDEZak, 2012ko uztailaren 16an, zehapen-espeditentea ez irekitzeko proposamena igorri zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (LDEA); izan ere, ez zuen uste lehia murrizten duen jokaerarik eman zenik, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak debekatzen dituenak.

4. Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK) 2012ko abenduaren 19an egindako bileran aztertu eta erabaki zuen espeditentea.

II.- ZUZENBIDE-OINARRIAK

5. LDEZak ebazpen-proposamena igorri zion LDEAri, ebatz zezan. Edonola ere, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeko bigarren xedapen gehigarriak arautzen duena betez, LDEA desegin egin da ebazpen honen egunean Lehiaren Euskal Agintaritzak hartu baitu honen lekua, 2012ko uztailaren 17an. Horregatik, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2102 Legeko bigarren xedapen iragankorrak eta 10. artikulua arautzen dutena aintzat hartuta,



Lehiaren Euskal Agintaritzari dagokio zehapen-prozedurak erabakitzea, Lehiaren Euskal Kontseiluaren bitartez.

6. Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak, Lehiaren Defentsaren Erregelamendua onartzekoak, 25.5 artikuluan arautzen du salaketa bat aurkezteak ez duela zertan ezinbestean ekarri zehapen-prozedura bat hastea. Halaber, Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluak (gure kasuan, Lehiaren Euskal Kontseiluak) prozedurarik ez abiarazteko erabakia hartzen badu, salatzaileari jakinarazi behar dio, eta, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedurarik ez abiarazteko arrazoiak adierazi behar dizkio.

7. Lehiaren Defentsari buruzko Legeko 49.3. artikulua arautzen du Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak hala proposatzen badio (gure kasuan, Lehiaren Euskal Kontseiluak eta Ikerketa Zuzendaritzak, zortzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera), prozedurarik ez hastea erabaki dezakeela Legearen 1., 2. eta 3. artikuluek debekatutako jokabideak ustez egiteagatik. Era berean, jarduerak artxibatzea erabaki dezake, baldin eta ikusten badu ez dagoela legea urratu izanaren aztarnarik.

8. Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren babesaren pean eratutako elkarteak da erakunde salatzailea, EIA. IFZ G-36981025 du eta inskribatuta dago Barne Ministerioaren mendeko Estatuko Elkarten Erregistroan (35, 36, 39-48, 55 folioak). Horregatik, Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoak baztertu egin du EIAk elkargokide izateko egindako eskaera; izan ere, EIAk ez du "lanbide-sozietatearen" izaera juridikoa, eta, ondorioz, ezin da inskribatu aipatutako Elkargoak duen Elkarten Erregistroan (1 eta 2 folioak). Egia da Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorrak ez duela eskatzen pertsona fisiko bat edo sozietate-mota jakin bat izatea prokuradoreen elkargoko kide egin ahal izateko. Aitzitik, Estatutuko 12. artikulua arautzen du elkargoei utzi egin behar dietela elkargoko kide egiten Legeko 8.



eta 10. artikuluetan araututako baldintzak betetzen dituztenei. Prokuradore izateko eta elkargoetan sartzeko beharrezko baldintzak arautzen dituzte xedapen horiek, eta ez dute eskatzen sozietate-mota jakin bat izatea.

Omnibus izenez ezagutzen den legeak (alegia, abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, zenbait lege aldatzen dituenak Zerbitzu Jardueretan Aske Sartzeari eta Aritzeari buruzko Legeari egokitzeko) aldatu egin zuen Profesionalen Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeko 2. artikuluko 6. puntua, eta aldatutako xedapen horrek arautzen du legeak agindutakoaren arabera beteko dela sozietate bidezko jarduera profesionala, eta profesionalen elkargoei ezin dizkiotela mugak ezarri sozietate bidezko jarduera profesionalari. Hori horrela, kontuan izan behar da Lanbide Sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legeak profesional-elkargokide mota berri bat eratzen duela: lanbide-sozietatea. Sozietate horiek 2/2007 Legearen arabera eratu behar dira, eta dagokion profesionalen elkargoei duen Lanbide Sozietateen Erregistroan inskribatu behar dute. Era berean, arau honek dio lanbide-erregistroak eratu behar dituztela profesionalen elkargoei eta gainontzeko erakunde korporatiboek; beraz, lanbide-sozietateek dagokion Lanbide Sozietateen Erregistroan inskribatzea eskatu behar dute.

Horregatik guztiatik eta kontuan hartuta EIA ez dela lanbide-sozietate gisa eratu aipatutako 2/2007 Legeak xedatu moduan, Kontseilu hau bat dator LDEZak hartutako erabakiarekin, eta zuzenbidearen arabera dela jotzen du Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoaren erabakia, elkargokide izateko eskaera ukatzen diona EIA sozietateari.

9. Egia da lanbide-sozietate bat eratzeko eskakizunak mugatu egiten dituela prokuradore-lanbidera sartzeko aukerak, eta hori debekatutako jardueratzat har daitekeela Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea irakurriz gero. Dena dela, Lege batek arautzen du muga hori ezar daitekeela, eta 15/2007



Legeko 4. artikulua arautzen du debekuak ez zaizkiela legeek baimendutako jardueri aplikatuko.

10. Nahitaezkoa da elkargokide izatea prokuradore-lanak egiteko, eta honek esan nahi du elkargo bateko kide diren profesionalak soilik eman ditzaketela prokuradoretza-zerbitzuak; beraz, mugatu egiten da prokuradoretza-lanak egiteko aukera. Horrenbestez, lege-mailako arau batek agindu behar du nahitaezkoa izango dela elkargokide izatea Lehiaren Defentsaren Legeko 4. artikulua arautzen duen salbuespena aplikatzeko; izan ere hori adierazi zuen Elkargo Profesionalei buruzko txosten batean Lehiaren Batzorde Nazionalak, Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioa egin ondoren.

Horrela, Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 3. artikulua, *Omnibus Legeak* egindako aldaketaren ostean, arautzen du lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza dela dagokion Profesionalen Elkargoko kide izatea, baldin eta Estatuko lege batek hala ezartzen badu. Halaber, azaroaren 21eko 18/1997 Legeak, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoak, 30. artikuluan agintzen du elkargodun lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza dela dagokion elkargoko kide izatea, baldin eta elkargoaren sorrerako legeak edo geroago eman den maila bereko beste arauen batek hala xedatzen badu. Prokuradore gisa jarduteko nahitaez elkargokide izan behar dela Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorreko 10. artikulua arautzen du, eta abenduaren 5eko 1281/2002 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Estatutu hori. Ondorioz, nahiz eta Bizkaian ez duen lege-mailako arau batek xedatzen elkargokide izan behar dela prokuradore-lanak egiteko, *Omnibus Legeko* laugarren xedapen iragankorrek finkatzen ditu Legea bera indarrean sartu aurretik elkargokide egiteko obligazioak.

11. Lehiaren Batzorde Nazionalak adierazi du, era berean, lehia mugatzen duela abokatu- eta prokuradore-lanen bateraezintasunak¹. Hori dela eta, Zerbitzu Jardueretan

¹ Lehiaren Batzorde Nazionalak, Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioa egin ondoren Profesionalen Elkargoei buruz idatzitako txostena, 55. orrialdea.



Askatasunez Sartu eta Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak, alegia, *Aterki Legea* delakoak, 25. artikuluan arautzen du lege-mailako arauak ezarri behar dituztela diziplinen arteko bateraezintasun-erregimenak, lanbide arautuetan. Alde horretatik, 2/1974 Legeko 2. artikuluko 5. paragrafoak agintzen du lege batek arautu behar duela noiz bete behar diren lanbideak modu eskusiboan eta noiz izango diren bateraezinak bi lanbide edo gehiago. Ildo horretatik, gogoan hartu behar dugu Bulego Judizial berria ezartzeko legedia prozesala aldatzeko azaroaren 3ko 13/2009 Legeak 23. artikuluan txertatzen duen 3. puntu berria; izan ere, puntu horrek arautzen du bateraezina dela prokuradore- eta abokatu-lanetan aldi berean jardutea. Hortaz, bateraezintasun hori bat dator *Aterki Legeak* eta *Omnibus Legeak* arautzen dutenarekin.

12. Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoak instalazio publikoak kosturik gabe erabiltzen dituela esaten da, baina, gogoan hartu beharrekoa da Elkargo hori zuzenbide publikoko korporazio bat dela eta Administrazioak eskuordetutako funtzio publikoak betetzen dituela. Besteak beste, hauek dira Elkargoaren xedeak: prokuradoretzak bere lehia-eremuan dituen interesak eskusiboki ordezkatzeta eta elkargokideak diren prokuradoreen eskubide eta interes profesionalak defendatzea. Horrek justifikatzen du finantzaketaren zati bat publikoa izatea, gainontzeko Profesionalen Elkargoekin gertatzen den bezala.

13. Laburbilduz, Lehiaren Euskal Kontseilu honek onetsi egiten du aurkeztu zaion ebazpen-proposamena, eta espediente hau artxibatzeke agintzen du.

Horregatik guztiagatik, Lehiaren Euskal Kontseilu honek

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Onestea LDEZak Lehiaren Euskal Kontseilu honi aurkeztutako ebazpen-proposamena, espedientea ez irekitzearena.



Bigarrena.- Espediente hau artxibatzea agintzen da.

Eman ebazpen honen berri Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta jakinarazi berau interesdunei. Halaber, interesdunei adieraziko zaie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena eman zen egunetik kontatzen hasita.

Bilbon, 2012ko abenduaren 31n

LEHENDAKARIA
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO

KIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA